

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 28/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 21ekoa. Onestea 2019rako laguntza deialdia, zeinak xede duen diruz laguntzea, alde batetik, kudeaketa programak, abere arrazak, animalien osasuna, animalien ekoizpena eta elikagaien segurtasuna eta ekonomia kudeaketa dela-eta ustiatzeko aholku zerbitzua hobetzeko, eta bestetik, Santiago eguneko azokara joateko eta I. eranskinaren moduluak eguneratzeko

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Foru Dekretuaren bidez onespena eman zitzaizen abere arrazak hobetzeko, animalia osasunerako, animalia ekoizpenerako, ustiatzeko elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko eta Aldundiak Santiago egunean azokara joateko abeltzaintza laguntzak arautzen dituzten oinarriak.

Aipatutako foru dekretuaren 7.1 artikulua xedatzen du urtero onetsiko dela dagokion deialdia. Aipatutako deialdiak honako hauek jasoko ditu:

- Deialdiko laguntza lerroak.
- Laguntzen ebazpenerako gordetzen diren kredituak.
- Eskerak aurkezteko epea.
- Onuradun edo linea bakoitzeko gutxieneko eta gehieneko laguntza zenbatekoa, hala badagokio.
- Laguntzak ordaintzeko modua eta, hala badagokio, ematen den unean aurreratuko den ordainketa ehunekoak.
- Hala badagokio, espedienteak sailkatzeko irizpideak.

Abeltzaintza Zerbitzuak, 2019ko martxoaren 4ko txostenaren bidez, proposatu du onespena ematea 2019rako laguntza deialdiari, 2018ko baldintza beretan, salbu eta ordainketa aurreratua- ren ehunekoan, zeina ehuneko 81 izango bailitzakete, baita lerro bakoitzerako kreditu erreserbei ere. Horrez gain, proposatu du eguneratzea diruz lagundutako gastuak zehazteko foru dekretuaren I. eranskinean ezarritako moduluen zati bat eta "Abere arrazak hobetzeko programak kudeatze"ko 2.1 laguntza lerroari dagozkion laguntzen zenbatekoa, bai eta beste modulu berri bat txertatzea ere.

Nahikoa aurrekontu kreditu dagoenez, aginduzko txostenak ikusita, horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eguneratzea Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 24ko 54/2017 Dekretuaren I. eranskinean ageri diren modulu hauen zenbatekoa, eta beste modulu bat gehitzea. Foru dekretu honen I. eranskinean ageri den bezala idatzita geldituko da eranskin hori:- Esnetarako behietan, "Behien esne kontrola" modulua euroko 0,25 zentimo igotzea, eta orain 31,50 euro izango da.

– Esnetarako ardietan, "Intseminazio artifizialak" modulua 2 euro igotzea, eta orain 9,04 euro izango da.

– Ardi eta ahuntzen beste arraza batzuetan, "Kalifikazio morfologikoak" modulua 4,45 euro igotzea, eta orain 5,20 euro izango da.

– Ardi eta ahuntzen beste arraza batzuetan, “Gurasotasunen kontrola” modulua ezartzea 23,95 euroan eta laguntzaren ehuneko 70.

Bigarrena. Onespina ematea abere arrazak hobetzeko, animalien osasunerako, animalia ekoizpenerako, ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzua emateko eta Aldundiak Santiago egunean azokara joateko abeltzaintza laguntzen 2019ko deialdia. Hona zehaztasunak:

– Deialdiko laguntza lerroak:

2.1. Abere arrazak hobetzeko programen kudeaketa.

2.2. Animalia osasuneko programen kudeaketa.

2.3. Animalia ekoizpeneko programen kudeaketa.

2.4. Ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzuak ematea.

2.5. Abereak 2019ko Santiago azokara joatea edo diruz lagundutako programak hedatu eta ezagutzera emateko jarduerak egitea.

– Eskeraek aurkezteko epea: hilabete, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

– Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastuen aurrekontu 2019ra luzatuaren 40.1.02.43.00.4810006.8 partidaren kargura, guztira 631.578,95 euro gordetzea, urteka honela banatuta eta ondoren zehazten den zehaztasunarekin:

2019. urterokoa: 511.578,95 (guztirako zenbatekoaren ehuneko 81).

2020. urterokoa: 120.000,00, gainerako ehuneko 19ari dagozkionak.

– Hona hemen laguntza lerro bakoitzarentzat gorde beharreko zenbatekoak:

2.1. Abere arrazak hobetzeko programen kudeaketa: 400.000,00 euro (324.000,00 euro 2019. urterokoaren kontura eta 76.000,00 euro 2020koaren kontura).

2.2. Animalia osasunerako programen kudeaketa: 91.652,15 euro (74.238,24 euro 2019ko urterokoaren kontura eta 17.413,91 euro 2020koaren kontura).

2.3. Animalia ekoizpenerako programen kudeaketa: 100.000,00 euro (81.000,00 euro 2019ko urterokoaren kontura eta 19.000,00 euro 2020koaren kontura).

2.4. Ustiategiei elikadura segurtasunari eta ekonomia kudeaketari buruzko orientabide zerbitzuak ematea: 30.000,00 euro (24.300,00 euro 2019ko urterokoaren kontura eta 5.700,00 euro 2020koaren kontura).

2.5. Abereak 2019ko Santiago azokara joatea edo diruz lagundutako programak hedatu eta ezagutzera emateko jarduerak egitea: 9.926,80 euro (8.040,71 euro 2019ko urterokoaren kontura eta 1.886,09 euro 2020koaren kontura).

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein arrazoirengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagatik ere.

Laguntza lerro batean krediturik sobera badago, izapide gehiagorik gabe zuzendu ahalko da behar duten lerroetara, hasierako kredituaren proportzio berean, batean baino gehiagoan behar bada.

– Laguntzak ordaintzeko honela egingo da ordaiketa deialdi honetan: ehuneko 81 laguntza ematen denean, eta gainerako ehuneko 19a, aurrerakin hori oinarri arautzaileen 10.1 artikuluan ezarritako moduan justifikatu ondoren, 2020ko apirilaren 1a baino lehen eta betiere hurrengo ordainketaren aurretik.

– Laguntzaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa onuraduneko eta espedienteak sailkatzeko irizpideak: deialdi honetan, nola gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak hala espedienteak sailkatzeko irizpideak oinarri arautzaileetan ezarrita daude.

Hirugarrena. Deialdi honetan, 2019an hasitako programak aurkez daitezke, eta 2019ko urtarilaren 1etik sortutako gastuak onartuko dira.

Laugarrena. Salbuespenez, deialdi honetan, 2.1 neurrirako (“Abere arrazak hobetzeko programen kudeaketa”), Eusko Jaurlaritzaren Animalia Arrazak Sustatzeko Elkartearen Erregistroan inskribatzeko aldian dauden elkarteek aurkeztutako eskaerak onartuko dira. Kasu horretan, prozedura hori abiarazi izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da.

Bosgarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko, eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteroko deialdiak ebatzen dituen ebazpenaren kontra aurkezten diren errekursoak ebatzeko.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

1. ERANSKINA

2.1 laguntza lerroaren (abere arrazak hobetzeko programen kudeaketa) moduluak

	MODULUAREN PREZIOA (EUROTAN)	DIRULAGUNTZA EHUNEKOA
Esetarako behiak		
Liburu genealogikoaren kudeaketa		
Inskripzio berriak	6,69	Ehuneko 100
Liburuaren mantentzea	5,60	Ehuneko 100
Kalifikazio morfologikoak	11,80	Ehuneko 70
Gurasotasunen kontrola	9,56	Ehuneko 70
Genomika	35,00	Ehuneko 70
Esnearen kontrola		
Esnealdi baliodunak	31,50	Ehuneko 70
Esetarako ardiak		
Liburu genealogikoaren kudeaketa		
Berrerroldak, erditzeak, aurrerakoien hazkuntza	1,36	Ehuneko 100
Liburuaren mantentzea	1,98	Ehuneko 100
Esnearen kontrola		
Esnealdi baliodunak	6,32	Ehuneko 70
Hobekuntza genetikoa		
Intseminazio artifizialak	9,04	Ehuneko 70
Genealogia duten animaliak	3,64	Ehuneko 70
Kalifikazio morfologikoak	0,75	Ehuneko 70
Haragitarako behiak		
Liburu genealogikoaren kudeaketa		
Berrerrolda, erregistroa, altak	17,54	Ehuneko 100
Liburuaren mantentzea	9,71	Ehuneko 100
Kalifikazio morfologikoak	17,49	Ehuneko 70
Gurasotasunen kontrola	23,95	Ehuneko 70
Etekinen kontrola		
Etekinen kontrolak	12,86	Ehuneko 70
Zaldi azienda eta astoak		
Liburu genealogikoaren kudeaketa		
Berrerrolda, erregistroa, altak	17,54	Ehuneko 100
Liburuaren mantentzea	9,71	Ehuneko 100
Kalifikazio morfologikoak	17,49	Ehuneko 70
Gurasotasunen kontrola	23,95	Ehuneko 70
Beste ardi eta ahuntz arraza batzuk		
Liburu genealogikoaren kudeaketa		
Berrerrolda, erregistroa, altak	1,36	Ehuneko 100
Liburuaren mantentzea	15,02	Ehuneko 100
Kalifikazio morfologikoak	5,20	Ehuneko 70
Gurasotasunen kontrola	23,95	Ehuneko 70